



Jesus Alfredo Ispizua Zuazua  
Gizarte Ekonomiaren zuzendaria  
Enplegu eta Lan Sailburuordetza  
Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

Jaun hori,

Euskadiko Kooperatiben Lege Aurreproiektuaren berri jaso genuen Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan iragan urriaren 5ean, euskaraz eta gaztelaniaz, Tramitagune tresna informatikoaren bitartez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza horretatik bidalita, derrigorrezko txostena emateko eskatuz.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuaren 22.1) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Euskadiko Kooperatiben Lege Aurreproiektua aztertu ondoren, egungo hizkuntza araudia urratzen ez duela adierazten dut.

Bestalde, kontuan harturik Lege Aurreproiektuaren euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak daudela, bete da Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakian jasotakoa, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak onartu zituena.

b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua onartu zuen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak xedatzen duenez, autonomia erkidegoak bakarreko eskumena du kooperatiben gainean, merkataritza arloko legeria orokorrarekin bat (10.23 artikulua).

Eskumen horren babesean onartu zen Kooperatibei buruzko otsailaren 11ko 1/1982 Legea, gerora Euskadiko Kooperatiben ekainaren 24ko 4/1993 Legeak ordeztua. Azken lege honek hainbat aldaketa jasan ditu, ekainaren 29ko 1/2000 Legeak, abenduaren 1eko 8/2006 Legeak eta Euskadiko Kooperatiba Sozietate Txikiei buruzko ekainaren 25eko 6/2008 Legeak eragindakoak. Bestalde, aipatzekoa da ekainaren 25eko 6/2008 Legea ere, Euskadiko Kooperatiba Sozietate Txikiei buruzkoa.

Halaber, erregelamendu bidezko garapenari dagokionez aipatzekoak dira ondorengo arauak: otsailaren 2ko 64/1999 Dekretua, herri onurako kooperatiba-sozietateei dagozkien prozeduren eta betekizunen araudia onartzekoa; apirilaren 4ko 61/2000 Dekretua, Gizarte Ekimeneko Kooperatibak arautzekoa; martxoaren 29ko 58/2005 Dekretua, Euskadiko Kooperatiben Legearen Erregelamendua onartzekoa; eta martxoaren 29ko 59/2005 Dekretua, Euskadiko Kooperatiben Erregistroaren antolaketa eta funtzionamenduaren Erregelamendua arautzekoa.

Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun arloak finkatu zituen, ondoren Lehendakariaren martxoaren 1eko 8/2013 Dekretuak eta Lehendakariaren abenduaren 2ko 34/2013 Dekretuak aldatutako araua. Bertan jasotzen denez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari dagozkion egiteko eta jardun-arloen artean dago gizarte-ekonomia, barne hartuz kooperatibak, lan-sozietate anonimoak eta ekonomia solidarioa (8.1.c artikulua).

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 9ko 191/2013 Dekretuaren arabera, Enplegu eta Lan Sailburuordetzari dagokio gizarte ekonomiaren, ekonomia solidarioaren eta kooperatibismoaren arloko ekintzak sustatzea eta koordinatzea (9.1.q artikulua), eta Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzari dagokio sailburuari legegintza arloko berrikuntzak eta Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legearen aldaketak proposatzea, sektoreak hobeto funtziona dezan (12.e artikulua).

Arau horiek guztiak aintzat hartuta, orain izapidetzen ari den Lege Aurreproiektuaren bitartez Euskadiko Kooperatibak arautuko dira berriz ere, egun indarrean dagoen ekainaren 24ko 4/1993 Legea ordeztuz.

Lege Aurreproiektuaren I. tituluan sozietate-kooperatiba lantzen da (1-100 artikulua), II. tituluan xedapen bereziak (101-144 artikulua), III. tituluan kooperatibak eta administrazioa (145-151 artikulua), eta IV. tituluan kooperatiben elkartegintza (152-154 artikulua). Azkenik bost xedapen gehigarri; bi xedapen iragankor; Euskadiko Kooperatiben ekainaren 24ko 4/1993 Legea, Euskadiko Kooperatiba Sozietate Txikiei buruzko ekainaren 25eko 6/2008 Legearen 3.5 artikulua, eta arau berriarekin talka egiten duten maila bereko eta apalagoko xedapenak indarrrik gabe lagako dituen xedapen indargabetzailea; eta bost azken xedapen daude.

Lege Aurreproiektuan hizkuntza aipamen bakarra dago, 71. artikuluan (Kooperatiba-heziketa eta –sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpena) lehenengo paragrafoko d) idatz zatian jasotzen baita, estatutuek edo batzar orokorrak finkatutako oinarritzko ildoak aplikatuz, soberakinei 69.2.a) artikuluan ezartzen zaien nahitaezko ekarpena interes publikoko helburu batera bideratuko da, eta aukeren artean dago “euskararen erabilera sustatzea”. Xedapen horren aurrekaria Euskadiko Kooperatiben ekainaren 24ko 4/1993 Legearen 68bis.c) artikuluan dago.

Aurreikuspen hori egokia izanda ere, arau berriak euskararen erabileraren normalizazioari begira eragin hobea izan dezan, proposamen hauek egiten ditugu:

b.1- Lege Aurreproiektuan jasotakoaren ondorioz pertsona fisikoek eta pertsona juridikoen ordezkariak harremanak izango dituzte Eusko Jaurlaritzarekin, eta izaera publikoa duten Euskadiko Kooperatiba Erregistroarekin eta Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluarekin. Zentzu honetan, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak dio herritarrek euskara eta gaztelania erabil dezaketela, ahoz nahiz idatziz, herri administrazioekiko harremanetan, arreta hizkuntza berean jasotzeko eskubidea barne (5.2.a eta 6.1 artikulua).

Hortaz, Lege Aurreproiektuan xedapen berria txertatzeko proposatzen dugu, eduki honekin:

-Lege honen ondorioz Eusko Jaurlaritzarekin, Euskadiko Kooperatiba Erregistroarekin eta Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluarekin dituzten harremanetan, pertsona fisikoek eta pertsona juridikoen ordezkariak euskara eta gaztelania, ahoz nahiz idatziz, erabiltzeko eta arreta hizkuntza berean jasotzeko duten eskubidea bermatuko da.

b.2- Lege Aurreproiektuaren I. tituluko III. kapituluan Euskadiko Kooperatiba Erregistroa arautzen da, Eusko Jaurlaritzako sail bati atxikitakoa (15. artikulua).

Horren harira, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 7. artikulua dio Jaurlaritzaren mendeko erregistro publikoetan inskribapenak egiterakoan jatorrizko agiria idatzita dagoen hizkuntza ofiziala erabiliko dela, eta erakustean edo ziurtagiriak egiterakoan Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialen arteko itzulpenak bermatuko direla, eta ildo berean daukagu Euskadiko Kooperatiben Erregistroaren antolaketa eta funtzionamenduaren Erregelamendua onartu zuten martxoaren 29ko 59/2005 Dekretuaren 20. artikulua.

Hortaz, Lege Aurreproiektuaren 17. artikuluan paragrafo berria txertatzeko proposatzen dugu, eduki honekin:

-Euskadiko Kooperatiba Erregistroan inskribapenak egiterakoan jatorrizko agiria idatzita dagoen hizkuntza ofiziala erabiliko da, eta erakustean edo ziurtagiriak egiterakoan Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialen arteko itzulpenak bermatuko dira.

b.3- Lege Aurreproiektuaren 154. artikuluan Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua arautzen da, nortasun juridiko propioa duen erakunde publikoa izanik, eta bertan ordezkaturik egongo dira kooperatibak, Eusko Jaurlaritza eta unibertsitateak. Artikuluaren laugarren paragrafoan jasotzen denez, erregelamendu bidez zehaztuko dira egitura, osaera eta funtzioak, eta abar.

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren izaera publikoa eta osaera anitza ikusita, eta Euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea aintzat hartuta, kideek batzarretan nahi duten hizkuntza ofiziala erabiltzeko eskubidea bermatu beharko litzateke.

Beraz, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua arautuko duen erregelamendua taxutzerakoan, jaso beharko litzateke kideek batzarretan euskara eta gaztelania erabili ahal izango dutela, eta biak erabiliko direla deialdietan, gai-zerrendetan, aktetan eta beste idazkietan.

Adeitasunez,

Gasteizen, 2015eko urriaren 13an

Joseba Lozano Santos  
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria